

145. ALDIZKARIA - 2008ko azaroaren 28a

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK

UHARTE

Ordenantza. Behin betiko onespina

Uharteko Udalak, 2008ko abuztuaren 28an egin bilkuran, hasiera batean onetsi zuen jaiotzak eta hileta edo omenaldi zibilak baimentzeko eta egiteko udal ordenantza.

Hasierako onespinari buruzko iragarkia 2008ko 121. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen, urriaren 3an, bai eta Herriko Etxeko iragarki oholean ere, eta jendaurreko epean inork ez du alegaziorik aurkeztu; hortaz, ordenantza hori behin betikoz onetsi da eta osorik ematen da argitara, behar diren ondorioak izan ditzan; hori guztia, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/2008 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

ORDENANTZA, JAIOTZAK ETA HILETA EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO BAIMENA ARAUTZEN DUENA

I. KAPITULUA

Prozeduraren hasiera

1. artikulua. Ordenantza honen asmoa da jaiotzak eta hildakoen aldeko hileta edo omenaldi zibiletarako baimenak eta ospakizun horiek egiteko lokalen (barnean nahiz kanpoan) erabilera arautzea Uharteko udal mugapean. Udalerrian erroldatutakoendako eta odol-ahaidetasuneko lehen graduko ahaideendako baizik ez du balioko.

2. artikulua. Alkateak edo hark eskuordetzen duen zinegotziak edo/eta funtzionarioak emanen du jaiotza eta hileta edo omenaldi zibiletarako gordetzen diren gunek erabiltzeko baimena, betiere Uharteko Udalaren Erregistroan eskaera zuzentzen duen ahaideak edo pertsonak bidali beharko dituen agiriak jaso ondoren.

3. artikulua. Jaiotzak eta hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak alkateari zuzenduko zaizkio eta Uharteko Udalean aurkeztuko dira, Herri Administrazioen Araubideari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak onartzen dituen moduetako edozein erabilita.

Jaiotzak eta hileta edo omenaldi zibilak egiteko eskaerak oso azkar tramitatuko dira, egoerak hala eskatzen baitu. Horretarako, ebazpena emateko eskua duen pertsonari igorriko zaizkio.

4. artikulua. Eskaeretan honako datuak agertuko dira:

a) Ospakizuna egiteko baimena eskatzen duenaren izen-abizenak, helbidea eta identifikazioa.

b) Hildakoaren edo jaiotakoaren izen-abizenak.

c) Hilobiratzeko, hiletarako edo omenaldi zibilerako baimenaren kopia. Jaiotzetarako familia liburuaren kopia.

d) Eskameran adierazi beharko da zer egunetan eta zer ordutan egin nahi den jaiotza, hileta edo omenaldi zibila.

e) Ospakizun horiek, oro har, Osoko Bilkuren aretoan eginen dira (edo Udalak horretarako moldatzen duen aretoan); hortaz, areto horretan biltzen ahal den jende kopurua (100 lagun) baino jende gehiago bertaratuko dela uste bada, espresuki adierazi beharko da, eta ospakizuna edukiera handiagoko beste udal aretoen batean egiteko eskatuko da.

f) Administrazioa, ahal duen heinean, eskatzaileek nahiago dituzten egun eta orduak errespetatzen saiatuko da, eskaerak aurkeztu diren hurrenkerari begira betiere. Halako kasu berezietan hurrenkera hori aldatzen ahalko da, aldaketa hori behar bezala arrazoituz betiere.

g) Eskatera zein tokitan eta zein egunetan aurkezten den.

h) Eskatzailearen sinadura edo, bestela, edozein bide erabili beharko da haren gogoia benetakoa dela frogatzeko.

i) Aldez aurreko ordainketa egin izanaren ordainagiria gehituko zaio eskabideari, Udal eraikinak erabiltzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskalak ezartzen duen moduan.

j) Ekitaldiaren azalpen laburra, eta beharko den materiala.

5. artikulua. Eskatera zuzentzea eta hobetzea. Eskararen 4. artikuluan zehazturiko baldintzak betetzen ez badira, interesdunari ahalik eta lasterren eskatuko zaio akatsa zuzen dezan edo aginduzko agiriari ekar ditzan, ekitaldia egin baino lehen edo ondoren.

II. KAPITULUA

Instrukzioa

6. artikulua. Alkateak edo hark eskuordetzen duen zinegotzi edo/eta funtzionarioak finkatuko du jaiotza, hileta edo omenaldi zibila zer egunetan eta zer ordutan eginen den, kudeaketaren ardura duen departamenduak behar den espedientea instruitu ondoren betiere.

Hori guztia eginen da eskaerak aurkeztu diren hurrenkerari begira, eta kontuan hartuz, ahal den heinean, eskatzaile bakoitzak nahiago dituen egun eta orduak. Aparteko inguruabar objektiboak eta premia larria dagoenean, aukera egonen da eskaerak aurkeztu diren hurrenkerari ez begiratzeko. Nolanahi den ere, behar bezala arrazoitu beharko da aparteko premia larria, eta zegokien eskubidean aldaketa jasan dutenei entzun beharko zaie.

7. artikulua. Eskatera ikusita, alkateak, edo hark eskuordeturiko zinegotziak edo/eta funtzionarioak hileta edo omenaldi zibila Udalaren zein aretotan eginen den erabakiko du. Osoko Bilkuren aretoa erabiliko da, oro har, edo Udalak ospakizunetarako egokitzen duen beste aretoen bat. Aparteko kasuetan, bestelako lokalak erabiltzeko baimena ematen ahalko da.

8. artikulua. Jaiotzak eta hileta edo omenaldi zibilak astelehenetik igandera ospatzen ahalko dira, eta beharrezkoak diren udal baliabideak erabiltzen ahalko dira.

9. artikulua. Hileta edo omenaldi zibilak egiteko ordutegia: 9:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 21:00etara. Ospakizunak gehienez ere hirurogei minutu iraunen du.

10. artikulua. Uharteko Udaleko funtzionarioen edo lan-kontratudunen bat joanen da jaiotza, hileta edo omenaldi zibila ospatzeko ekitaldira, ekitaldi osoan zehar bertan geldituko baita, ospakizuna behar bezala egiten dela bermatzearren.

III. KAPITULUA

Eskubideak eta betebeharrak

11. artikulua. Aretoen egoera behar bezalakoa izan dadin, ospakizuenan parte hartzen dutenek ez dute barrenean dependenziak kalte ditzakeen deus eginen.

12. artikulua. Ekitaldiaren hotsanditasunak eskatzen duen modukoa izanen da aretoa. Hala ere, familiartekoek edo adiskideek aretoa apaindu edo egokitu nahi badute, udal arduradunari behar bezain garaiz jakinarazi beharko diote, hark behar den erabakia har dezan. Tokiaren harmonia eta ezaugarriak begiratuko dira beti, eta haien kontura izanen dira apainketa eta egokitze gastu guztiak. Interesduna arduratuko da, bere kontura arduratu ere, ekitaldia ospatzeko zerbitzu osagarriez. Uharteko Udalak zerbitzu horiek ikuskatuko ditu, hala ere.

13. artikulua. Ospakizuna ez da iraingarria izanen eta ez da besteen ideia eta printzipoen aurka joanen.

14. artikulua. Espazio publikoa erabiltzeko eskatzen ahal da, orobat. Eskaerarekin batera, hileta edo omenaldi zibila zer espazio publikotan egin nahi den zehaztu beharko da. Eskubideak eta betebeharrak berberak egonen dira halakoetan ere.

15. artikulua. Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan, udal arduradunen jarraibideak bete beharko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Alkateari baimena ematen zaio honako ordenantza hau aplikatzeko behar diren jarduketa guztiak egin ditzan.

AZKEN XEDAPENA

Honako ordenantza honek indarra hartuko du Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzen den egun berean, eta Udalak osoko bilkuran espresuki aldatu edo indargabetu arte egonen da indarrean.

Uhartan, 2008ko azaroaren 3an.-Alkatea, Francisco Javier Basterra Basterra.

Iragarkiaren kodea: L0816834

